ARTIKULU ZIENTIFIKOA

Nire etxeko patioa ez da partikularra

Abaraska, jabetza pribatu eta alokairuaz gain etxebizitza izateko eredu bat

Laburpena

Bizi dugun etxebizitza-krisiaren barruan sortu da Abaraska Etxebizitza Kooperatibo taldea Donostian. Uruguai, Bartzelona eta Danimarkako ereduari jarraituz, erabilera-lagapeneko etxebizitza kooperatiboek betiko alokairu eta higiezinen merkatuaren aurrean beste eredu bat planteatzen dute: etxebizitza eskuragarri eta duin bat lortzeko, etxearen inguruko komunitate bat eta zaintza-eredu bat osatzeko eta jabetza kolektiboa lantzeko.

Gako-hitzak: etxebizitza, kooperatiba, komunitatea, erabilera-lagapena

Abstract

Housing Co-operative Abaraska was created in Donostia to find alternatives in the housing crisis. Grant of use housing cooperatives contemplate a different model of housing in front of classic house renting or owning market like in Uruguay, Barcelona or Denmark. They are a way for obtain a reasonable and decent house, for create a community around the house and for work in a collective property.

Keywords: cohousing, co-operative, community, grant of use



Michela Lamedica Lispi
Manex Izagirre Elizaran

Arkitektoak, Abaraska Etxebizitza Kooperatiboko eta M-Etxea kolektiboko kideak

Bidaltze data: 2018-09-10
Onartze data: 2018-10-01

Amaitu da ekonomia-krisia. Eraikuntza-garabiak berriro ageri dira hirietako zerumugan. Albistegiek langabezia iraganeko kontua dela diote, etxeak saltzeko garai ona dela, bankuei maileguak nahi adina eskatzeko. Oporretara joaten gara, kirola egin, telefono garestiak erosi, parrandan atera. Baina ez dugu etxerik.

Ezin uka, etxebizitzaren krisiaren garaian bizi gara. Eraikuntza-burbuila lehertu baino gehiago puztu egin da, alokairuen prezioak izugarri igo dira, eta alokatzeko baldintzak gogortu; soldatak txikiagoak dira, eta hipotekak luzeagoak. Gure gurasoek zutena baina gehiago dugu, baina ez dugu etxerik.

Krisi honen barruan sortu zen Abaraska Etxebizitza Kooperatiboaren lehen hazia Donostian 2016an, M-Etxearen lokalean LaCol-eko arkitektoek La Borda kooperatibari buruz emandako hitzaldi baten ondoren. Etxebizitza ereduari alternatibak planteatu eta nola bizi nahiko genukeen irudikatzeko sortu da Abaraska. Etxebizitza prekarioei, egonkortasun gutxiko bizitzei, erantzuna emateko. Egungo bizimodu gero eta indibidualistagoan, zahartzaro gero eta bakartiagoan, bestelako etorkizun bat amesteko.

Bi urte hauetan, formazio- eta ikerketa-lana egin bitartean, KoopFabrika eta La Dinamo bezalako elkarteen laguntzaz, legeek bestelako etxebizitza-eredu bat nola barne har dezaketen aztertu dugu. Instituzio, alderdi politiko eta gainerako eragileekin bildu gara, Abaraska proiektuak ez baitu guretzat etxebizitza bat lortzea soilik helburu, politika publikoek bere egingo duten eta errepika daitekeen adibide bat sortzea baizik. Horrez gain, taldea osatu eta sendotzeari berebiziko garrantzia eman diogu. Emaitzari soilik ez, bideari arreta handia jarri nahi izan diogu, eta orain gure elkarbizitzarako espazio diren batzar eta lan-eremuetan sakondu. Abaraskaren indargune nagusietako bat bertan bildu garen pertsonak baikara.

Abaraskako Koldo aita bakarra da. Ezin du alokairua ordaindu, eta logela bat alokatu behar izan du. Kattalin amonak utzitako etxean bizi da, autonomoa da eta etxetik lan egiten du, baina oso bakarti sentitzen da. Ez ditu bizilagunak ezagutzen. Joxemartin azken 10 urteetan 4 etxe eta 18 pisukiderekin bizi izan da. Teresa eta Simonak familia osatu nahi dute, hiritik atera behar izan dute etxebizitza bat osorik alokatu ahal izateko.

Zerk lotzen ditu pertsona horiek? Etxea zer den galderari erantzuteko modu berak: gure bizitza osatzeko dugun erdigunea, bizimodua egonkortu, eta munduan txoko bat ematen diguna.

Etxebizitza eskubide gisa

Abaraskatik, zer da etxebizitza galderari emango geniokeen beste erantzunetako bat, hauxe izango litzateke: etxebizitza bermatzen ez den oinarrizko eskubide bat da.

Urrutira joan gabe, Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendariaren esanetan, une honetan EAEn 65.000 familia unitate daude etxebizitza eske, horietatik 52.000 alokairu-eskaeran[1]. 2013tik 2018 hasierara, alokairuko

1 Yoldi, M.J. (2018): «Políticas Públicas de Cooperativas de Vivienda: Retos y Oportunidades» mahai-ingurua [bideo-fitxategia], GEZKI, Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua, EHU [presidentzia], Altenativas Cooperativas a la Problemática de la Vivienda, 2018/06/22, Joxe Mari Korta Zentroan burututako jardunaldia, EHU, Donostia, [kontsulta: 2018/09/10] <https://ehutb.ehu.eus/video/5b337610f82b2b2b6c8b4ad6>.

Aldiri, 2018, III, **35**, 31-35, ISSN 1889-7185



1. irudia ~ Abaraska taldearen batzarra.
Egilea ~ Michela Lamedica.

etxebizitzen prezioak batez beste % 22 hazi dira Espainian (Lacol eta La Ciutat Invisible, 2018). Datu hauek ikusirik, ez da harritzekoa kapitalismoak alokairuan oinarritutako higiezinen burbuilan aurkitzea merkatua ustiatzeko bide berria.

Abaraska bezalako erabilera-lagapeneko etxebizitza kooperatiboen proiektuak, gero eta ugariago sortzen ari dira, etxebizitza duin eta eskuragarri bat izateko eskubidea bermatzeko proposamen kolektibo gisa. Eskubide hori etxebizitza merkatu-ondasun bezala esplotatzeko eskubideari gailentzen zaio.

Euskal Herrian eta Espainian, aspaldidanik egon izan dira etxebizitza-kooperatibak, promozio-gastuak gutxitzeko helburuarekin. 1911ko Etxe Merkeen legeari esker sortu ziren lehen kooperatibak, landa-eremutik hirietara izandako migrazioek eragindako etxebizitza-arazoei irtenbidea emateko. 70 eta 80ko hamarkadetan promoziorako etxebizitza-kooperatibek gorakada nabarmena izan zuten, langile-mugimendu eta sindikatuek bultzaturik. Gaur egun, batez ere babes ofizialeko etxebizitzen promoziorako sortu ohi dira kooperatiba horiek(Lacol eta La Ciutat Invisible, 2018). Baina kasu gehienetan, eraiki ondoren jabetza banatu eta kooperatibak desegin egin dira, eta etxebizitza horiek babesa galtzean, merkatu librera igarotzen dira.

Erabilera-lagapen eredua, ostera, jabetza kolektiboan oinarritzen da. Juridikoki eta ideologikoki kooperatiba moduan antolatutako komunitate batek higiezin bateko etxebizitza eta espazio komunen erabilera bermatzen die bere bazkideei. Ohiko etxebizitza-kooperatibetan ez bezala, kasu honetan kooperatibak berak higiezinaren jabetza eta kudeaketa mantendu egingo du. Lurzorua pribatua bada, jabetza kolektibo moduan egingo da kudeaketa, haatik 75 urterako azalera-eskubide moduan orube publikoa den kasuetan. Kudeaketa asanbleario eta kolektibo honek espekulaziorako aukerak ekidin eta etxebizitzei berezko erabilera-balioa itzultzen die, kontsumo-ondasun gisa baliogabetu eta jabetza pribatuaren ideiarekin hautsiz. Etxea merkatutik kanpo geratzen da, eta bestelako produkzio, kudeaketa eta edukitzea bultzatzen da.

Bazkide edo elkarbizitza unitate bakoitzaren betirako erabilera-eskubidea sarrera-kuota baten bidez (proiektua uztea erabakiz gero berreskuratu daitekeena), eta hilabeteko kanon baten bidez eskuratzen da. Gaur-gaurkoz edonorentzat bermatutako etxetik urrun izan arren, kostu ekonomikoa oso baxua da, etxebizitza-erosketa batekin alderatzen badugu.

Baina abantaila ekonomikoez gain, behar sozial komunei erantzun kolektiboak bilatzeak etxearen kontzeptuaren ikuspegi zabalago bat ematen digu, habitat konplexuago baten eraikuntza irudikatzeko. Habitat horretan, ez dira soilik espazio komunak sartzen, baita zerbitzu sozialak eta gure inguruaren eraldaketa ere, hiri- eta landa-eremuaren arteko harremana birpentsatuz, bizitzeko zer nolako hiria nahiko genukeen irudikatuz, lurraldearekiko arduraz jokatuz, eta beste mota bateko hirigintza bultzatuz. Etxebizitza izateko eskubidetik, hiria izateko eskubidera(Lefebvre, 1967).

Etxebizitza komunitate gisa

Etxea, ondasun material soila baino gehiago da: gure oinarrizko harreman taldea finkatzen du, etxearen inguruan osatzen baitugu gure bizitza sostengatzeko sarea.

Izan ere, ez gara erabat autonomo eta burujabe, zaila eta irreala da sozialki, ekonomikoki eta afektiboki. Beharrizan horiei erantzuna emateko, bide klasikoa da familia nuklearra: familia da kasu askotan zaintzen gaituena, laguntza ematen diguna, eta bakardadeari aurre egiten diona.

Baina zer gertatzen da behar duten sostengua familian aurkitzen ez duten pertsonekin? Edo familia-eredu klasikotik ateratzen direnekin?

2. irudia ~ Hunziker Areal hirigintza-garapeneko 2 eraikin eta espazio publikoa.
Egilea ~ Mehr als Wohnen.

Etxebizitza-kooperatibaren helburu nagusietako bat da pertsonen beharrizanak erdigunean jarriko dituen komunitatea sortzea. Etxebizitza modu kolektiboan irudikatzea. Zaintzen esparru domestikoa ikusarazi eta komunitatearen eginbehar nagusietako bat bihurtzea; publiko/produktibo eta pribatu/erreproduktibo dikotomia hautsiko duen dinamika arau moduan ezartzea.

Co-housing da zaintza-ikuspegi horri jarraitzen dion etxebizitza-eredua. Europa iparraldean, senior komunitateetan sortutako etxebizitzak oso zabalduak dira (Mogollón García eta Fernández Cubero, 2016): zahartzaro duin bati aurre egiteko, eta familiari karga berezia ekiditearren sortutako komunitateak dira.

Garai bateko haurren hazkuntza partekatua berreskuratzeko ere, komunitate ugari sortzen ari dira. Baina zergatik lotu zaintzaren kontzeptua haurtzaro eta zahartzaroarekin bakarrik? Ez al dugu gure bizitzako garai guztietan zaintza, laguntza eta harreman afektiboen beharra? Denboraren ekonomia, gaur egun hain preziatua duguna, komunitate baten barnean kudeatzeko mila modu aurki daitezke.

Co-housing aipatzean, sarri abantaila ekonomikoei soilik begiratzen diegu: etxebizitza bat merkeago izatea, Internet sarea edo garbigailua partekatzea. Baina eredu honen eraldaketa ekonomikoak are urrunago doaz. Esaterako, jabetza kolektiboak inork ordaintzeko zailtasunak dituen momentuan, laguntza bat izatea ahalbidetzen du; edo energiaren ekoizpenean jasangarriagoa izatea, kontsumo-ereduan alternatibak bilatzea, edota auzoaren barnean komunitate gisa integratzea.

Kontzeptu horiek, etxearen arkitekturaren barnean, eremu komunetan islatzen dira bereziki. Diseinu parte-hartzaile bat burutzeak gaur egungo etxebizitzek lortzen ez duten malgutasuna dakar. Michael LaFond Alemaniako hirigile eta arkitektoaren hitzez azaltzeko, ideia «democratising housing»[2]. da. Modus operandi honek adin, kultura edo bizitzeko moduaren arabera komunitate baten beharrak alda daitezkeela ulertzera garamatza. Denok batera otorduak egiteko sukalde bat, edo aisialdirako espazioak dira horrelako etxebizitza kooperatiboetan ohikoena.

Horrez gain, norberaren etxeen diseinuan ere malgutasuna izatea eskertzekoa da, eta batez ere beharrak eta ahalmenak aldatzen diren neurrian, etxea moldatzeko aukera izatea. Biztanleen ehuneko handi bat etxe berean bizi gara gure bizitza osoan. Baina ez ditugu behar berak gure bizitzako garai bakoitzean: bizi gaitezke bakarrik momenturen batean, familia bat osatu, edo seme-alabak emantzipatzen direnean etxea handi gera daiteke. Eredu honek fase bakoitzean norberaren beharretara egokitzen den etxebizitza izateko aukera eskaintzen du.

Ipuinetako etxebizitza

Erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatibez mintzatzen garenean, ez gara soilik eta esklusiboki esparru publikoan aplika daitezkeen etxebizitza-ereduez ari. Hala ere, Abaraskaren kasuan, hori da gure apustua. Azken urteotan, izan ere, etxebizitzaren inguruan, proiektu berritzaile ugari hiriz kanpoko eremu pribatuetan garatu dira, hori dela-eta esperimentu kurioso bezain anekdotiko moduan geratu ohi dira.

Etxebizitza-politika publikoak birpentsatzeko eta alternatiba arrunt bilakatzeko, hiri barnean espazioak badaudela eta egon behar dutela deritzogu. Administrazio publiko eta gobernuei dagokie eskubideen bermatzaile moduan duten rola betetzea. Hori posible izan dadin, sektore honetan irabazi-asmorik gabeko kooperatibismoaren garapena

2 Together! The New Architecture of the Collective, erakusketa-katalogoa (Vitra Design Museum, Weil am Rhein, 2017ko ekainaren 3a – irailaren 10a), Ruby Press, Berlin.

Aldiri, 2018, III, **35**, 31-35, ISSN 1889-7185

erraztu, jabetza kolektiboa aintzat hartu, eta erabilera-eskubidea legez indartu beharko lukete. Baita lurzoruak laga eta finantzaketa publikoaren sistema bat sortu ere, finantza-entitate etikoek bakarrik ezin baitute beren bizkar hartu eredu berri honen zabalpenak sortuko lukeen karga.

Ez da ipuinetako kontua. Erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiben lehen esperimentuak XX. mendearen hasieran sortu ziren. Gaur egun arte, 125.000 etxebizitza daude Danimarkan (Andel eredua) eta 30.000 Uruguain (etxebizitza-parke osoaren % 2,65)(La Borda, 2016). Azken horretan, Federación Uruguaya de Cooperativas de Vivienda por Ayuda Mutua (FUCVAM) delakoak, besteak beste, errenta baxuko eta oso baxuko klase sozialei etxebizitzarako sarrera bermatzeko irtenbideak proposatzen ditu, autoeraikuntza erabiliz(Cabrera, 2018). Urteak dira bestelako aldaera eta ereduak Kanadan, Alemanian, Frantzian, Erresuma Batuan, Ameriketako Estatu Batuetan eta herrialde eskandinaviarretan ere garatzen ari direla. Etxebizitza-eredu honek azken aldian eman duen atentzioari esker, proiektu oso interesgarriak sortu dira, Zuricheko Hunziker Areal gunea kasu. Hori, bloke-puntu tipologian oinarritutako hirigintza esku-hartze konpaktu eta dentsoa, hainbat arkitektura-proposamen desberdin izateagatik nabarmentzen da. Gainera, arreta berezia jartzen du energia aurreztean eta inklusio sozialean (Fernández -Mozas, 2016). Proiektu horrek World Habitat Awards saria irabazi zuen 2016an.

Espainiako Estatuan, arestian aipatutako La Borda kooperatiba, azken 6 urteetan Bartzelonako udalarekin izandako negoziazio eta lanen ondoren, Sants auzoan proiektu aitzindari bat eraikitzen ari da, estatuan egurrezko egitura duen eraikinik altuena izango dena gainera. Horren ondorioz, Bartzelonako Udalak, antzeko proiektuak eratzeko, beste 7 orube atera ditu lehiaketara, horietatik 5 dagoeneko esleituak. Laster Madrilen ere beste iniziatiba batzuk abian ikusiko ditugu, lurzoru pribatuan kasu honetan; Zaragozako Udala, Balear Irletako Gobernua eta beste hainbat administrazio publiko ere, eredu hau top-down ikuspegi batekin nola ezarri aztertzen ari dira.

Gugandik gertuago, EAEko kooperatiba-lege berriak erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiben ereduaren zabalkundea ekarriko duela espero da. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak Donostiako Txomin Enea auzoan egingo du eredu honetara inguratzeko saiakera bat. Ikusi behar ea erakunde publikoek top-down bultzatutako proiektu hauetan nola mamitzen den komunitatearen sorrera, eta ea ez diren alokairuko Babes Ofizialeko Etxebizitza klasikoak bilakatzen.

Bien bitartean, Nafarroan, Bizkaian eta Araban ere jaiotzen ari dira Abaraskaren antzeko proiektuak. Agerikoa da mamu bat dabilela munduaren gainean: etxebizitza kooperatiboaren mamua (Marx-Engels, 1998).

///

Bibliografia

Cabrera, M. (2018): «Cooperativas de Vivienda: Experiencia en Uruguay» hitzaldia [bideo-fitxategia], GEZKI, Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua, EHU [presidentzia], Altenativas Cooperativas a la Problemática de la Vivienda, 2018/06/22, Joxe Mari Korta Zentroan burututako jardunaldia, EHU, Donostia, [kontsulta: 2018/09/10] <https://ehutb.ehu.eus/video/5b349716f82b2b95098b4909>.

Fernández Per, A. eta Mozas, J. - a+t research group (2016): *Form & Data. Collective Housing Projects: An Anatomical Review*, a+t architecture publishers, Gasteiz.

La Borda, Cooperativa d'Habitatges en Cessió d'Ús (2016): Cesión de Uso, [kontsulta: 2018/09/10] <http://www.laborda.coop/es/proyecto/cesion-de-uso/>.

Lacol eta La Ciutat Invisible (2018): *Habitar en Comunidad. La Vivienda Cooperativa en Cesión de Uso*, Catarata, Madril.

Lefebvre, H. (1967): «Le Droit à la Ville», *L'Homme et la Société*, 6, 29-35.

Marx, K. eta Engels, F. (1998): Alderdi Komunistaren Manifestua, *Jakin Irakurgaiak*, Donostia.

Mogollón García, I. eta Fernández Cubero, A. (2016): *Arquitecturas del Cuidado*, Emakunde, Zeberio.

Together! The New Architecture of the Collective, erakusketa-katalogoa (Vitra Design Museum, Weil am Rhein, 2017ko ekainaren 3a – irailaren 10a), Ruby Press, Berlin.

3. irudia ~ FUCVAMeko komunitate bat autoeraikuntzan.
Egilea ~ Gustavo Castagnello.

4. irudia ~ La Borda proiektuaren obraren fase bat.
Egilea ~ LaCol Arquitectura Cooperativa.